



Non: N. Zubia, *Doctrina Christiana*, 1691 (J. De Lezamis, Vida del apostol Santiago, 1699)

Bertsio honen iturria: K.Mitxelena, *Textos arcaicos Vascos*, Madrid, 1960, eta
Ibon Sarasola, *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, 1983..

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/Z/ZubiaDoktrina.htm>

DOKTRINA KRISTIANA

Nikolas Zubia

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabetgo Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

IESU KRISTOREN JAIOTZA KOPLETAN

Gau on sanktu onetan,
Iaunaren iaiazean,
Fozgatu gaitean
Gustiok biotzean.

Aita Adam egin zan
Lurraren gainean,
Bekatu egin eta
Iausi zan arean.

Linboan egoan
Bost mila urtean.
Iauna, iasi zaitez
Zeruetarean.

Negarren dago an
Zeinbat urtean.
Iauna, iasi zaitez
Zeruetarean.

Donzella eder baten
Belengo errian
Seña Iesu Kristo
Dauko sabelean.

Eguzki dibinala
Gauerdi batean
Etorri zan lurrera
Gizonen soñean.



Kolokio entre los pastores

—Matxinikito!
 —Zer dio<k>, Txe-ru?
 —Atzorik ona,
 Ze barri dogu?

—Barri dogu ze
 Angeru mira
 Gure menditik
 Igaro dira.

AITAGUREA

Aita gurea, zeruetan zagozana.
 Sanktifikadu dila zure izena.
 Betor gugana zure erreñua.
 Konpli bidi zure borondatea,
 Egunean eguneango gure ogia emun eiguzu egun.
 Parkatu eiguzu gure bekatuak,
 guk parkatuten deusteguna legez geure zordunai.
 Ez eiguzu itxi tentazionen iaustiten.
 Guardatu ta libradu gagizu<z> gaiz gustietatik, Iauna.
 Amen Iesus.



AGURMARIA

Abe Maria, grazias betea. Iauna da zugaz.
 Bedeinkatea zara zu andra gustien artean.
 Bedeinkatua da zure sabel birjinaleko fruktua, Iesus.
 Santa Maria, Iaungoikoren amea,
 erregutu egiozu gu bekatiok gaitik
 orain eta geure eriozako orduan.
 Amen Iesus.

ARTIKOLU FEDEKOEN EXPLIKAZINOA

Fedeko Artikoluak diraz amalau; leleengo zazpirak pertenezietan jakaz Iaunaren Dibinidadeari: beste zazpirak pertenezietan jakaz Kristoen Humanidade Santeari.

DIBINIDADEARI pertenezietan jakazanak diraz oneek.

Leleengoa sinistu Iaungoiko baten guztiz poderosoagan.

KONFESOREA: Zeinbat Iaungoiko diraz?

PENITENTEA: Bat Iauna.

KONFESOREA: Da Iaungoikoa gorpuzagaz egina?

PENITENTEA: Ez Iauna; ez dauko Iaungoikoak gorpuzik.

KONFESOREA: Zer da Iaungoikoa?

PENITENTEA: Korpuzbako Espiritubat, gauza aen admiretako, oein ezin pensadu leian nolangoa dan; Iaun bat fin bagarik poderosa, Santua, Sabioa, perfekzinoa guztien jabea, da gauza guztien fina eta prinzipioa.

KONFESOREA: Nolan da Iaungoikoa guztiz podoroso?

PENITENTEA: Bere borondateagaz egiten dabelako gura daben guttia.

2. Bigarrena sinistu dala Aitea

3. Irugarrena sinistu dala Semea

4. Laugarrena sinistu dala Espiritu Santua

KONFESOREA: Zein da Trinitate Santisimea?

PENITENTEA: Iaungoikoa bera, Aitea, Semea da Espiritu Santua; iru persona da Iaungoiko egiazkobat.

KONFESOREA: Aitea Iaungoikoa da?

PENITENTEA: Bai Iauna.

KONFESOREA: Semea Iaungoikoa da?

PENITENTEA: Bai Iauna



KONFESOREA: Espiritu Santua Iaungoikoa da?

PENITENTEA: Bai Iauna.

KONFESOREA: Diraz iru personak, iru Iaungoiko?

PENITENTEA: Ez Iauna, ezpada Iaungoiko bat; Aitea, Semea da Espiritu Santu Iauna, iru persona da Iaungoiko bat.

KONFESOREA: Iru personeen artean zein da geiago edo leenago?

PENITENTEA: Ez bata, ez bestea da geiago, ez zarrago, ez leenago; iru personak diraz gauza guztietan igualak, da bat, izaitean, poderioan da perfezinoetan, direlako Iaungoiko bat.

5. Bostgarrena sinistu dala Kriadorea

KONFESOREA: Zer esan gura dau dala Iaungoikoa Kriadorea?

PENITENTEA: Egin zituzala gauza guztiak ezerbere ezereanik; da egin dituzanen igaitea konserbetan dabela, egonik bere borondatean kriaturen izaitea edo ez izaitea.

6. Seigarrena sinistu dala Salbadorea

KONFESOREA: Zer da Iaungoikoa Salbadore izaitea?

PENITENTEA: Parketan dakizala bekatuak; da emaiten dabela grazia bekataria biortu didin bere adiskide izaitera.

7. Zazpigarrena sinistu dala Glorifikadorea

KONFESOREA: Zer da Iaungoikoa Glorifikadore izaitea?

PENITENTEA: Emaiten deustela bera serbietan dabenai da bere grazian ilten direanai Zeruko gloria.

KONFESOREA: Zeinbat Kriadore dagoz?

PENITENTEA: Bat Iauna.

KONFESOREA: Zeinbat Salbadore?

PENITENTEA: Bat Iauna.

KONFESOREA: Zeinbat Glorifikadore?

PENITENTEA: Bat Iauna, iru persona da Iaungoiko egiazko bat, Kriadore bat, Salbadore bat, Glorifikadore bat.

HUMANIDADEARI pertenezietan jakazanaz diraz oneek.

Leleengoa sinistu Kristo gure Iauna, Gizona izan partez sortu zala Birjinearen Sabelean Espiritu Santu Iaunaren birtutez.

KONFESOREA: Trinidadeko iru personetatik, zein egin zan Gizon?

PENITENTEA: Bigarren persona, zein dan Iesu Kristo Iaungoiko da Gizon egiazkoa.

KONFESOREA: Aitea Gizon egin bazan?

PENITENTEA: Ez Iauna.

KONFESOREA: Espiritu Santua Gizon egin bazan?

PENITENTEA: Ez Iauna.

KONFESOREA: Bada zein Gizon egin zan?

PENITENTEA: Bakarrik Semea, zein Gizon eginik deretxan Iesu Kristo.

KONFESOREA: Iesu Kristo Iaungoikoa da?

PENITENTEA: Bai Iauna.

KONFESOREA: Iesu Kristo Gizona da?

PENITENTEA: B[a]i Iauna, Iaungoiko da Gizon egiazkoa.

KONFESOREA: Nolan sortu zan Birjineen Sabel santan?

PENITENTEA: Ez gizonen obraz, ezpada Iaungoikoak Birjineen odol puruagaz egin eban gorpuz bat da kriadu eban arima perfekta bat: da gero bigarren persona Trinidadeko batu edo bat egin izan gorpuz da arima onegaz gu<e>retan zala leen Iaungoikoa izana bakarrik Gizon bere eginik.

2. Bigarrena sinistu jaio zala Maria Birjinea ganik. Donzella zala jaio baño lenago, jaiakeran da jaio ezkeru

KONFESOREA: Birjina Santisimeak bere Seme Iesusa jaiotean galdu beeban Donzella izaitea?

PENITENTEA: Ez Iauna, bidrieratik iragoten dana legez Eguzkia ausi bagarik bidrioa jaio zan Iesusa Birjina Santisima ganik, galdu bagarik Donzella izaitea: alan izan zan Donzella jaio baño lenago, jaiakeran da biziza guztian; obra au egin ebalako Iaungoikoen poderioak.



3. Irugarrena, sinistu artu ebala pasinoa da eriozea gu bekatariok salbaetarren

KONFESOREA: Zegaiti Koruzean artu eban Iesusak eriozea?

PENITENTEA: Gu bekatareanik da infernurean libraetarren.

KONFESOREA: Iesusa Iaungoikoa legez ala Gizona legez il zan?

PENITENTEA: Gizona legez Iauna; zerren Iaungoikoa dan partez il ezin leiteana legez, Gizon egin zan eriozea arzaiterako.

KONFESOREA: Zer da Iesusa iltea?

PENITENTEA: Bere arima Santea apartaetea bere gorpuz Sagradureanik apartaetan dana legez, beste Gizon ilten direanetan.

4. Laugarrena sinistu jasi zala infernuetara da atera zituzala arima Aita Santuenak begira egozanak aen etorrera santuari

KONFESOREA: Zer adietan dozu infernuen izenagaz?

PENITENTEA: Dagoz lurrean barruan, lau leko zeinzuei bean dagozalako deresten infernuak: bat bereengoa, zeindan kondenaduak dagozana; bigarrena. zeinetan dagozan Purgatorioan Arimak; irugarrena, zeinetan dagozan Bautismua artubagarik ilten direan Seinen arimak; Laugarrena zeintan egon zirean Arima Santuenak zeinzuk il zirean Iesusa etorri baño lenago; da sartu ezin izan zirean glorian, Iesusak bere eriozeagaz irigi artean Zeruko Atea: leko oneri deretxo Abraanen Senoa edo Santuen ren linbua.

KONFESOREA: Lau lekoetarik zeinetara jasi zan Iesusa?

PENITENTEA: Beste iru lekoak bere sentidu eben bere grandezen birtutea: baea jasi zan Abraanen Senura edo Santuen linbura; da bera ikosteagaz, an egozan Santuak egin zirean Bienabenturadu, da urtenik, joan zirean Iesusagaz Zerura.

KONFESOREA: Iesusen gorpuza jasi bazan linbura?

PENITENTEA: Ez jauna, ezpada bere arima, eze gorpuza geratu zan sepulturan.

KONFESOREA: Dibinidadea edo Iaunkoikoa jasi zan arimeagaz linbura ala gu<e>ratu zan gorpuzagaz Sepulturan?

PENITENTEA: Iasi zan linbura arimeagaz Iaungoikoa da egoan gorpuzagaz sepulturan biakaz baturik edo bat egik: zerren Iaungoikoa apartadu ez da gorpuzerean ez arimeaganik.

5. Bostgarrena sinistu irugarren egunean bizitu zala ilaen artean

KONFESOREA: Zer da ostera Iesusa ilazkero bizitutea edo erresuzitutea?

PENITENTEA: Eriozeagaz Iesusen arimea gorpuzereanik apartadu zana, biortu zala irugarren egunean gorpuzagaz batutera, edo bat egitera; zeinegaz bizitu zan ez beinbere ilterako.

6. Seigarrena, sinistu igo ebala Zeruetara da jasarririk dagoala Aita Iaungoiko guztiz poderosen alde eskomatati

KONFESOREA: Zer da Iesusa Aita eternoaren alde eskoman jasarririk egotea?

PENITENTEA: Iesu Kristo dana legez Iaungoikoa da Gizon egiazkoa: Iaungoikoa dan partez daukala gloria iguala da bat Aiteagaz da Espiritu Santuagaz; Gizona dan partez, daukala kriptura guztiak baño gloria da grandeza geiago.

7. Zazpigarrena, sinistu etorriko dala ju<i>zioko egunean Onai ematen bere gloria, zerren gorde zituezan aen Mandamentuak; da gestoai sekolako penea, zerren gorde ezituezan aen Mandamentu Santuak

KONFESOREA: Iuizioko egunean guztiok biortuko gara bizi izaitera?

PENITENTEA: Bai Iauna, orain daukaguzan gorpuz da arimakaz errezuzitatu edo bizituko gara geure pensadu, esan edo egin doguzan



gauza guztien kontua emaitera; da betiko Zeruan bizi izaiteko edo infernua egoterako akabuko sententzia arzaitea.

KONFESOREA: Besterik sinistu bear bozu?

PENITENTEA: Bai Iauna, bost gauza.

1. Leleengoa, Elexa Santa Katholika bat

KONFESOREA: Zegas egiten da Elexea?

PENITENTEA: Mundu guztiko Kristinau Iesusen fedea da Aita Santu Erromakoen obediencia daukanakaz egiten da, Kofradia bat legez gorpuz bat zeinen burua da Iesusa da Iesusen Bikarioa legez lurrean Aita Santu Erromakoa.

KONFESOREA: Zergati da Elexea Santea?

PENITENTEA: Bere burua zein dan Iesusa, legea, fedea da Sakramentuak direlako guztiak Santuak.

KONFESOREA: Zer da Elexea Katholika izaitea?

PENITENTEA: Mundu guztieo Kristinau guztiakaz konponidurik egotea.

KONFESOREA: Zergaiti da Elexea bat?

PENITENTEA: Iaungoiko adoretan dabena, fedea da lege daukana, da Ia/ ... /... /direla/ko bat.

2. Bigarrena, Santuen Komunioa

KONFESOREA: Zer da Santuen Komunioa?

PENITENTEA: Dagozala Elexan Santuak au da Iaungoikoen grazian dagozanak: da onelan bekatu mortal bago Iaungoikoen grazian idaraten direanak daukela parte mundu guztian egiten direan obra onean.

3. Irugarrena, bekatuen parkazinoa

KONFESOREA: Zer esan gura dau bekatuen parkazinoak?

PENITENTEA: Iesusak bere Elexati bakarrik itxi eusazala erremedioak bekatuak parkaetarako; zeinzuek direan Zazpi Sakramentuak, da onen artean partikolarean Bautismua da Penitentzia edo Konfesinoa.

KONFESOREA: Zer bear da egin Konfesinoan bekatuak parkaetarako?

PENITENTEA: Konfesadu bekatu mortal guztiak, bat bere itxi bago, damuriagaz da proposituagaz ez ostera Iaungoikoa ofendietarako

KONFESOREA: Itxi belegi bekatu mortal bat konfesadu bago losea gaitik edo damuari edo propositu bago, egiten da Konfesino ona?

PENITENTEA: Ez Iauna: alako Konfesinoa da deungea, da biortu bear diraz egitera alango Konfesino guztiak.

KONFESOREA: Konfesadu ezin balidi bago erremediorik bekatuak parkaetarako da Zerura joaterako?

PENITENTEA: Bai Iauna, Kontrizinoa.

KONFESOREA: Zer da Kontrizinoa?

PENITENTEA: Eukitea biozeko damuari andi bat bekatu eginena eurakaz ofenditu dabelako Iaungoikoa izanik aen ona, da amaetan dabelako gauza guztien ganean: proposituagaz ez ostera ofendietarako, da aldaigunean Konfesaetarako.

KONFESOREA: Komulgetan zoazanean zer arzen dozu?

PENITENTEA: Sakramentu Eukaristiakoa.

KONFESOREA: Zer dago Sakramentu Santu Eukaristiakoan?

PENITENTEA: Iesu Kristo gure Iauna Iaungoiko da Gizon egiazkoa.

KONFESOREA: Ogirik bago Sakramentu Santu Eukaristiakoan?

PENITENTEA: Ez Iauna bapere, Sazerdoteak konsagrado ezkerro Ostia.

4. Laugarrena, Aragien Erresurrezinoa

KONFESOREA: Zer da aragien erresurrezinoa?

PENITENTEA: Iaungoikoak bere poderioagaz biortuko dituzala gure gorpuzak aus edo beste gauza eginak, orain daukaguzana legez, ari-makaz baturik, bizituta.

5. Bostgarrena sekolako Bizizea

KONFESOREA: Zer da Sekolako Bizizea?

PENITENTEA: Bizizau akabatu azkeru arimak da korpuzak bat eginik il baziren Iaungoikoen grazian eukiko dabela sekolako, au da fin bako bizizea Zeruan ditxa guztiagaz beterik.